

2019

Klimatologia eta ziklo begetiboa

2019a ohi baino negu lehorragoa eta hotzago batekin hasi zen, egun argien sekuentzia batekin. Inausketa baldintza onenetan egin zen. Kimu goiztiarra eta uniformeatsailaren amaieran (lursail baxuak eta babestuak, Aldape adibidez) eta martxoaren erdialdera (altuera handiagoko lursailak). Udaberria euriteekin eta tenperatura epelekin, sentsazio termiko freskoagoarekin amaitzen da -maiatza amaieran, ekainaren hasieran-. Prezipitazio gutxi eta uda, ekaitzetan kontzentratua, egun eguzkitsu asko. Tenperaturak ez ziren altuak izan itsasoko haizeari esker, enbero berantiarra. Mahatsaren heldze geldo eta uniformeatsailaren udazkeneko lehen hegohaizearekin. Ziklo begetiboa baldintza onenetan amaitu zen, mahastietan gaixotasunik ez, hosto masa oso osasuntsua. Uzta oso baldintza onetan egin zen eta mahatsaren osasuna apartekoa izan zen.

Hautatutako uzta. Aldapeko mahastia, 2012an landatutako 0,9 Ha-ko lursaila "seleccion masal" sistema bidez. Hondarrabi beltza*. Triasiko garaiko ofitazko arroka ama duen lursaila: lur buztintsu-hareatsuak sakonera galtzen du beheko alderantza, non horizonte mugatzailea nabarmenagoa den buztinen %40tik gorako mailarekin. Lurzoruaren muga honek positiboki eragiten dio mahatsondoari: bere indarra mugatzen du, lur-landare-errendimendu oreka gatzetatik lortzen da eta mahatsaren heldutasun ona eta uniformeatsailaren erazten du. HO.BE ekoizteko mahatsa mahastiaren beheko zati honetan biltzen da.



Mahats barietatea

100% Hondarrabi beltza.

***Hondarrabi beltza.** Barietatea berez genetikoki hurbil dauden kasta bilduma bat da. Bakioko mahastizainek beti bereizi izan dituzte "Berdexa Baltza" eta "Berde sarie" besteak beste. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Guy Villamoz bezalako mahatsondo- genetikan espezialistek egindako identifikazio azterketek Cabernet Franc barietatetik hurbil dagoela ondorioztatu dute. Jancis Robinsonek eta Pedro Ballesterosek ez dute zalantzarik izan Hondarrabi Beltza aintizneko "biturika" barietate familiako Cabernet Franc arkaikoa dela baieztatzen.


Lekua

Aldape mahastia. Bakio, Bizkaia. D.O.Bizkaiko Txakolina. Euskadi.

Uzta

Urriaren 13an. Eskuzko uzta eta kutxak, hautaketa mahastiaren oinean egiten da gehienbat. Mahatsa upategira sartzen da gehienez 3 orduko epean.



**2019****Elaborazioa**

Lurzoruaren eta bariatatearen adierazpenara bideratutako ekoizpena. Txosrtenak kendu ostean hotzean, beratze labur bat egiten da. Gure mahastietan identifikatutako legamikin hartzitua, FAaren amaieran prentsaketa leuna eta hartzidura malolaktiko espontaneoak. Ontzea, haritz frantziar upel handietan lau hilabetez. Ondoren egonaldia altzairu herdoilgaitzezko deposituan. 2021eko irailean botilaratua. Sulfurosoaren gutxieneko erabilera.

Gradu alkoholikoa: 12,8% vol.

Azidotetasun tartariko osoa: 5,2% g/l.

Ph: 3,8

Azukre murriztea: ≤1 g/l.

Gutziz sulfurosoa: 29 mg/l.

Ekoizpen bolumena: 75 cl-ko 2.500 botila.

Aurkezpena: 75 cl-ko Borgoina estiloko 6 botiletako kartoizko kaxak. Kortxo naturala 1etik 1 sistemarekin (0 TCA).

DASTAKETA

Ikusmena: Erdi-mailako kapa, rubi koloreko ardoa.

Sudurra: Usain basatiak: lur hezea, baratze lehorra, belar lehorrak, fruitu gorrien eta aranaren oroitzapenak.

Ahoa: Ahoan erasoak, azidotetasun eta bolumen onarekin hasten da, osin eta belar lehorren pertzepzioarekin. Tanino helduek txokolate eta tintaren azken sententzia uzten dute ondoren, ardo freskoa izaten jarraitzen duten bitartean.

Prezipitatu naturalak izan ditzake.

Gomendatutako kontsumo epea: gaurtik 2028ra*. Ardoak eboluzio ona egiten du botilan.

*Lehen uzta izanda, ez dago denbora-tarte nahikorik eskuragarri, nahiz eta Hondarrabi Beltzaren zahartze ahalmena dagoeneko kontrastatua dagoen upategiko lehen ardo beltzean, BELTZAn.

Gomendatutako tenperatura: 16-18 ° C.

HO.BE.ren esanahia

HO.BE hitz joko bat da. Alde batetik HONDARRABI BELTZA izen konposatuaren lehen bi silabak dira eta bestetik HOBERen euskarazko esanahiarekin lotu nahi izan dugu. Izan ere, ardo hau egiteko hondarrabi beltzaren gaitasunean sakondu nahi izan dugu, gure desira zintzoaren ondorio.

